# ZZ eragilea :

WATER FAMILY
DU FLOCON A LA VAGUE

***Lekua :*** Euskal Herria, Landesak, Biarnoa + Frantses adarrak

***Elkartearen aurkezpena :*** Water Familiaren misioa ura aurrezten ikastea, osasunari eta biziduneri orokorki kasu egiten hezitzea da.

06 84 91 19 43 lawaterfamily



## Marion-i hitza

**Irakasbidearen arduraduna**

### *Zer da « Water Family, du Flocon à la vague » elkartearen jatorria ?*

2009an elkartea sortu da kirola eta hezkuntza batzen dituen bere lehen ekimenarekin. Pirinioetako elur tontorretatik ozeanora, ur tanta baten ibilbidea kondatuz uraren zikloaren babesteko nahikeria genuen.
Gaur egun, ikastetxeendako, enpresendako eta ekimenentzat programa pedagogiko osoak garatzen ditu.
Hori guzia, hezkuntza positiboarekin eta praktika onak balioztatzen dituen ikusmolde batekin !






### *Zertan parte hartzen duzue ZHZXan ?*

Ulertuz eragiten dugu !
Horrela, animazio/formakuntzak proposatzen ditugu ura birtuala edo zeharkakoa hobekiago ulertzeko : gure elikagaien eta kontsumorako ontasunen ekoizpen, transformazio eta garraioaren bitartez kontsumitzen eta kutsatzen dugun ur hau.

### *Zoin abilezia emango zenuke ZHZX dinamikan sartzeko ?*

Aldaketa iraunkor batentzat, elgarrekin herritar engaiatze momentuak parteka ditzagun.
Elgarrekin, ekonomia zirkularra, elkartasuna eta janariaren xahutzearen aurkako borrokaren bitartez, jatorrian eragin dezagun.

